

Nola egin AKDJ jakinarazpena

2016



AIREA IKSeem

EUISKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

Nola egin AKDJ jakinarazpena

2016

Data

2016ko apirila

Jabea

Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila



1	GIDAREN HELBURUA ETA IKSEEM SISTEMARAKO SARBIDEA	2
1.1	AKDJ JAKINARAZPENA	2
1.2	AKDJ ALDATZEA	2
2	JARDUERARI BURUZKO INFORMAZIOA SARTZEA IKSEEM APLIKAZIOAN	3
2.1	ZENTROA HAUTATZEA	3
2.2	KONTSIDERAZIO OROKORRAK	5
2.3	AKDJ JARDUERAK	7
2.4	FOKUAK	9
2.5	ATMOSFERAREN ZAINZA PLANA	12
2.6	EMISIOEN KONTROLA	13
2.7	IKEAK	14
3	AKDJ JAKINARAZPENA / AKDJ ALDAKETA BAT EGITEA	16
3.1	AKDJ JAKINARAZPEN-MEMORIA BETETZEA	16
3.2	DOKUMENTAZIOA BIDALTZEA	16

1 Gidaren helburua eta IKSeeM sistemarako sarbidea

Gida hau IKSeeM sistemaren erabiltzaileei zuzenduta dago¹; zehatz esanda, atmosfera kutsa dezakeen jarduera bati (hemendik aurrera, AKDJ) edo horren aldaketa bati dagokion jakinarazpena egin behar duten erabiltzaileari dago zuzenduta.

1.1 AKDJ jakinarazpena

Labur esanda, izapide horiek egiteko honako urrats hauek egin behar dira (gida honetan zehaztuko ditugu):

- Lehenengoz, AKDJ instalazioak “AKDJ jarduerak”, “Fokuak” eta “AZP” bete behar ditu IKSeeM sisteman (2. puntua). Aplikazioan sartutako informazio horrekin guztiarekin Word dokumentu bat sor daiteke, hurrengo urratsean erabiltzeko.
- Geroago, jakinarazpen-memoria bete behar da; horretarako, AKDJ instalazioei dagokien memoriaren eredia Ingurumen Sailburuordetzaren webgunean dago eskuragarri, Aireatalean, baita memoria hori nola bete zehazten duen gida ere (“Gida-04: Jakinarazpena egin behar dute instalazioek aurkeztu beharreko memoria teknikoak prestatzen laguntzeko gida”) (3. puntua).
- Horren ondoren, hala badagokio, AKDJ instalazioak Ingurumen Kontrolerako Erakunde (IKE) batekin harremanetan jarri behar du, hasierako IKE txostena egiteko (3. puntua).
- Neurketak egin behar dituen IKEak AIREA moduluko “Emisioen Kontrola” poltsa bete behar du.
- Azkenik, instalazioak jakinarazpen-txostena aurkeztuko du Hasierako IKE Txostenarekin batera, hala badagokio, IKSeeM sistemako e-DMA eskaera baten bitartez bidalita² (3. puntua).

1.2 AKDJ aldatzea

Aldaketa honela egin behar da:

- AKDJ instalazioak “AKDJ jarduerak”, “Fokuak” eta “Emisioen Kontrola” poltsak eguneratuko ditu; horretarako, aldatetari buruzko informazio berria gehitu beharko du (2. puntua). Instalazioak dagozkion aldatetak egin ahal izango ditu (altak, bajak eta/edo aldatetak), informazioa desblokeatuta egongo baita (giltzarrapoa zabalik).
- Aplikazioan sartutako informazio horrekin guztiarekin Word dokumentu bat sor daiteke, hurrengo urratsean erabiltzeko.
- Geroago, jakinarazpen-memoria bete behar da; horretarako, AKDJ instalazioei dagokien memoriaren eredia Ingurumen Sailburuordetzaren web-orrian dago eskuragarri, Aireatalean, baita memoria hori nola bete behar duen zehazten

¹ IKSeeM sistema: Ingurumenari buruzko informazioa modu integratuz kudeatzeko Sistema, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarena.

² Erabiltzaileek sisteman sartzeko beharrezkoa den informazio guztia aurkituko dute hemen: “Ingurumenari buruzko izapide elektronikoen gida”: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-3614/eu/contenidos/informacion/guia_iks/eu_def/index.shtml

duen gida ere (“Gida-04: Jakinarazpena egin behar dute instalazioek aurkeztu beharreko memoria teknika prestatzen laguntzeko gida”). Memorian, aldaketak baino ez dira jakinaraziko, hau da, lehendik jakinarazitako informazioa ez da zertan berriz aipatu.

- Azkenik, instalazioak jakinarazpen-txostena aurkeztuko du Hasierako IKE Txostenarekin batera, hala badagokio, IKSeeM sistemako e-DMA eskaera baten bitartez bidalita² (3. puntua). Hasierako IKE Txostena behar izanez gero, jakinarazitako aldaketaren eremua soilik hartuko du eraginpean.

2 Jarduerari buruzko informazioa sartzea IKSeeM aplikazioan

AKDJ jakinarazpena egin aurretik, instalazioak datu zehatz batzuk sartu behar ditu IKSeeM aplikazioan, zehazki, AIREA atalean. Zer poltsa bete behar den aldatu egingo da honako kasu hauen arabera:

- a) Jakinarazpena egiteko Hasierako IKE Txostena egin behar duen instalazioa
 - b) Jakinarazpena egiteko Hasierako IKE Txostena egin behar ez duen instalazioa³
- a) kasuan, instalazioak honako hauei dagozkien poltsak bete behar ditu: “AKDJ jarduerak” (2.3 puntua), “Fokuak” (2.4 puntua), “AZP” (2.5 puntua); eta IKEak, aldiz, “Emisioen Kontrola” poltsa. b) kasuan, instalazioak 2.3 eta 2.4 poltsak baino ez ditu bete behar.

2.1 Zentroa hautatzea

Hona hemen bidea: AIREA > AKDJ > Zentroko poltsak > AKDJ jarduerak Ezer hautatu gabe, “Bilatu” markatzen badugu, erabiltzen ari garen ziurtagiriarekin baimenduta ditugun zentro guztiak agertuko zaizkigu.

Zentroa edo zentroak hautatu behar ditugu, horiei buruz informazioa sartu nahi badugu, eta gero, “Zerrenda egiaztatu”.

Zentroak

Zentroen zerrenda

3 elementuak bilatua(k), elementuak guztiak erakusten.
1 orri

	NIMA	Sozietatearen izena	Zena	IFK	Herriadea	Probintzia	Udalerrria	
<input checked="" type="checkbox"/>	0100031904	Corpprivado_siete s.a.	CENTRO DE PRUEBAS_SFG	A77223345	España	Araba	Zuia	D
<input checked="" type="checkbox"/>	0100031906	Corpprivado_siete s.a.	Segundo centro de pruebas	A77223345	España	Araba	Ayala/Aiara	I
<input checked="" type="checkbox"/>	0100031764	Entidaddos s.a.	prueba	B95399473	España	Araba	Vitoria-Gasteiz	V G

Zerrenda egiaztatu

Hortik aurrera, AIREA ataletan barrena nabiga dezakegu hautaketari eutsita (zentroaren NIMA zehatza); goiko aldean agertuko da. Zentro batetik bestera aldatu nahi badugu bigarrenaren datuak kudeatzeko, zentroaren sozietatearen izenaren gainean klik egin beharko dugu (urdinez).

Noiznahi egin ahal izango dugu beste iragazki bat, beste zentro bat hautatzeko:

Aukeratutako zentroak

elementua bat bilatua. Iragazi

1 orri

NIMA	Sozietatearen izena	Zena	IFK	Herriadea	Probintzia	Udalerrria	Holbidea
0100031904	Corpprivado_siete s.a.	CENTRO DE PRUEBAS_SFG	A77223345	España	Araba	Zuia	KALE NAGUSIA

Zentro hautatua

Erakunde: A77223345 - Corpprivado_siete s.a.
Zentroa: 0100031904 - CENTRO DE PRUEBAS_SFG

³ Hasierako IKE Txostena ez da bidali beharko emisioen kontrola egin behar duten kasuetan (adibidez, jakinarazitako foku guztiak ez-sistematikoak baldin badira, edo aldaketa bat jakinarazten den kasuan, betiere aldaketa foku bati baja ematea izanik)

2.2 Kontsiderazio orokorrak

AIREA/AKDJ barruan, zentroko bost poltsa daude. Lehenengo hiruretako (AKDJ jarduerak, Fokuak, Atmosferaren Zaintza Plana) informazioa AKDJ jakinarazpen-memorian jasota geratuko da. AKDJ jardueren mende daude fokuak, eta fokuen mende daude AZParen lerroak. Horregatik, informazioa pixkanaka sartzea komeni da (lehenik AKDJ jarduerak, gero fokuak, eta hirugarrenik Atmosferaren Zaintza Plana).



Instalazioak bere jarduerak, fokuak eta AZParen proposamena alda ditzake “desblokeatuta” egoeran baldin badaude (datuak “blokeatuta” egoeran egongo balira, zerbitzuarekin harremanetan jarri behar da egin beharreko aldaketak egin ditzan; izan ere, administrazioak baino ezin ditzake egin aldaketa horiek).

Hiru pantaila horietan sartutako informazioa berriz erabil daiteke, jakinarazpen-memorian berriro ere “idatzi” behar ez izateko. Horretarako, Jarduerak, Fokuak eta AZP ataletako informazio guztia sartu ostean, instalazioak “Laburpena sortu” egin dezake (komando hori “AKDJ jarduerak” poltsan dago), formatu editagarrian:

ATMOSFERA KUTSA DEZAKETEN JARDUERAK DITUZTEN INSTALAZIOAK
INSTALACIONES DONDE SE DESARROLLAN ACTIVIDADES POTENCIALMENTE
CONTAMINADORAS DE LA ATMOSFERA

LABURPENA: IKSeM SISTEMAN SARTUTA DAUDEN JARDUERA, FOKU ETA ATMOSFERAREN ZAINITZA PROGRAMA
RESUMEN DE ACTIVIDADES, FOCOS Y PROGRAMA DE VIGILANCIA ATMOSFERICA INCLUIDOS EN EL SISTEMA IKSeM

Empresa / Empresa: ENTIDAD_SP_ CINCO C.B.
 Zentroa / Centro: HAMABOST, S.L.
 NIMA: 200001504
 Jarduera / Actividad: Hosteleria
 Udalerria / Municipio: Donostia-San Sebastián

Instalazioaren erregelmen/ Instalación sujeta a: Autorización / Autorización_eu

JARDUERAK / ACTIVIDADES

Jarduera Kodea ⁽¹⁾	Taldea	Jarduera	Azalpena
Código Actividad ⁽¹⁾	Grupo	Actividad	Descripción
03032831	B	Equipos de combustión de contacto directo en la industria alimentaria en escaleros o instalaciones de alumado, esterilización, u operaciones similares de P11 a=20 MW(V)(B)	Equipo de combustión
04060516	C(2)	Tostación o tostificación del café o similares(C(2))	máquina café
04061206	B	Plantas de hornigón (B)	
04062001	a	Hornos de pan, masas diversas o galletas con c.p. >= 10.000 (a)(B)	Horno de pan

⁽¹⁾ Utzilierien 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren arabera. / ⁽²⁾ De acuerdo al Real Decreto 100/2011, de 20 de enero

FOKUAU / FOCOS

Fokuren Kodea	Fokuren izena	Jarduera Kodea	Emisioa	Kontrol eta tratamendurako sistema	Altura (m)	Funtzionamendu erregimena
Código de foco	Denominación foco	Código Actividad	Tipo Emisión	Sistema de tratamiento y control	Altura (m)	Régimen de funcionamiento
200001504-2	Cafetera	04061206	Confinado		12	Sistemático Sistemático
200001504-3	Puesto chapucillas	04060516	Confinado		8	Ez-sistematikoki No Sistemático
200001504-4	Horno 2	04061206	Difuso			Ez-sistematikoki No Sistemático
200001504-01	foco berria	03032831	Confinado		15	Sistemático Sistemático
200001504-01	fokua	03032831	Confinado	CICLON	15	Sistemático Sistemático

EMISIOAREN GEHIENENKO BALIOAK (EGB) eta ATMOSFERAREN ZAINITZA PLANAN VALORES LIMITE DE EMISION (VLE) y PLAN DE VIGILANCIA ATMOSFERICA

Fokuren Kodea	Kutsatzailea	Emisioaren gehieneko	Unitatea	%O ₂	Araua	Aldizketeak (hilabek)

Código de foco	Contaminante	balioa (EGB) ⁽¹⁾ Valor límite de emisión (VLE) ⁽²⁾	Unitad	%O ₂	Norma	Periodicidad (meses)
200001504-01	MONOXIDO DE CARBONO(EUS)/ MONOXIDO DE CARBONO	624	mg/Nm3		Según Instrucción técnica-IT-02. Controles de las emisiones. Según Instrucción técnica-IT-02. Controles de las emisiones	36 meses
200001504-3	PARTICULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)/ PARTICULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	75	mg/Nm3			36 meses
200001504-01	OXIDOS DE NITROGENO(EUS)/ OXIDOS DE NITROGENO	620	mg/Nm3		Según Instrucción técnica-IT-02. Controles de las emisiones. Según Instrucción técnica-IT-02. Controles de las emisiones	36 meses
200001504-4	MERCURIO Y SUS COMPUESTOS(EUS)/ MERCURIO Y SUS COMPUESTOS	20	mg/Nm3		UNE-EN 12519 UNE-EN 12010	60 meses
200001504-2	OPAZITATEA/ OPAZIDAD	2	BACH			

⁽¹⁾ Emisioaren gehieneko balioak baldintza hauetan: T=273K, P=101,3 KPa, eta gas lehena. ⁽²⁾ Límites de emisión referidos a las siguientes condiciones: T=273K, P=101,3 KPa y gas seco.

AIREA moduluaren barruko zenbait pantailatan informazio asko biltzen denez, alboko menuaren tamaina murrizteko komandoa prestatu da, pantailan errazago lan egin ahal izatearren:

Erabiltzaile Desarrollo Prueba, Corprivadosiete, ...

- >> Erakundeak eta zentroak
- >> Mantentze orokorrak
- >> Segurtasuna
- >> e-DMA
- >> HeA Zirkuituak
- >> HA Zirkuituak
- >> BH Monitorea
- >> Procedimientos Administrativos
- >> euAnalíticas
- >> Emisio Masikoak
- >> e-environment
- >> Box Dokumentala
- >> Airea

2.3 AKDJ jarduerak

AKDJ Jarduera	Deskribapena	Taldea	RD117/2003 Bai/Ez	Egoera
03010303	Caldera	C	<input type="checkbox"/>	
04030902	Granallado	C	<input type="checkbox"/>	

Lehenik, instalazioak zer erregimeni atxikitzen zaion adierazi behar du. Kasu honetan (AKDJ jakinarazpena izapidetzen ari den instalazioa) “Jakinarazpena”-ri atxikita dago.

Zentroa pantaila honetan sartzen den lehenbiziko aldian, “Erregimena” laukitxo honetan “Zehazteke” agertuko da, eta “Jakinarazpena” hautatu ahal izango du. Informazio hori gordetakoan, sistemak ez du utziko hori aldatzen (administrazioak baino ezin izango du aldatu).

“AKDJ jarduera” zutabearen jardueraren kodea sartu behar da (100/2011 Errege Dekretuko katalogoko kodea), zuriunerik gabe. Jarduera hori biltzen duen taldea automatikoki kargatuko da, baita marka bat ere, jarduera horri 117/2003 Errege Dekretua⁴ aplikatzen ote zaion adierazten duena. Horretaz gain, errenkada gorde eta saga gaineratik pasatzen bada, jardueraren definizio osoa agertuko da burbuila batean, 100/2011 Errege Dekretuan bezalaxe.

⁴117/2003 Errege Dekretua, urtarrilaren 31koa, zenbait jarduera eta instalaziotan disolbatzaile organikoak erabiltzeagatik sortzen diren konposatu organiko lurrunkorren isuriak murrizteari buruzkoa.

	AKDJ Jarduera	Deskribapena	Taldea	RD117/2003 Bai/Ez	Egoera	
<input type="checkbox"/>	03010303	Caldera	C	<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	04030902	Granallado	C	<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>

Tratamientos físicos o mecánicos de metales no férreos en frío (superficiales o no) caracterizados por la acción mecánica sobre el metal tales como el granallado, chorreado con abrasivos, pulido, laminación en frío, extrusión, trefilado, así como otras operaciones similares en talleres industriales para calderería, el oxícorde o la soldadura de piezas de metales no férreos

Laburpena sortu Deuseztatu Barrezarri Gorde

Irten

Deskribapenean, jarduerari buruzko informazioa adieraz daiteke, aukeran, baina ez da 100/2011 Errege Dekretuko deskribapena kopiatu beharrik; informazio hori sisteman dago jada.

Jarduera gehiago gehitu nahi badira, “+” sinboloa duen irudia baliatu behar da; horren bitartez, datuak sartzeko lerro berri bat agertuko da.

	AKDJ Jarduera	Deskribapena	Taldea	RD117/2003 Bai/Ez	Egoera	
<input type="checkbox"/>	03010303	Caldera	C	<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	04030902	Granallado	C	<input type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>

Laburpena sortu Deuseztatu Barrezarri Gorde

Ezabatu → Jarduera bat ezabatu nahi izanez gero, “-” sinboloa duen irudia baliatu behar da; horren bitartez, lerroa desagertu egingo da.

Deuseztatu () → lehen bazen jarduera bat orain ez dagoela adierazteko. Kontrako ekintza “Barrezarri” da. Kontuan izan behar da sistemak ez duela utziko jarduera bat deuseztatzen foku aktiboak baldin baditu. Jarduera hori deuseztatzeke, bi aukera daude: lehenik foku hori deuseztatzea (baldin eta jarduera ez ezik, fokua ere desagertu bada); edo, bestela, fokua oraindik iraun egiten badu baina beste jarduera batera aldatu bada, fokua aldatzea eta beste jarduera bat esleitzea eta, horren ondoren, jada ez dagoen jarduera deuseztatzea.

GARRANTZITSUA: aurreko hori nahi adina lerroekin egin ostean, “Gorde” botoia sakatu behar da aldaketak eguneratzeko.

2.4 Fokuak

Atal honetan, foku atmosferikoei buruzko datu garrantzitsuenak sartuko ditugu. Poltsa honetara iristean, bi gauza gerta daitezke: poltsa hutsik egotea, edo instalazioaren fokuei buruzko hainbat datu lehendik izatea:

- Poltsa hutsik baldin badago, jarraian zehaztutakoa egin beharko da
- Poltsan datuak baldin badaude, instalazioak Zentroaren Fokuen Poltsan alde zurretik sartutako datuak izango dira. Instalazioak balioetsi egin beharko du datu horiek zuzenak ote diren, hala badagokio, datuei eutsi edo “Deuseztatu” egiteko, jarraian zehaztuko dugun moduan. Kontuan hartu behar da kodifikazio zuzena NIMA -1, NIMA - 2 eta abarri dagokiola. Lehendik dauden datuak ez badatoz bat kodifikazio horrekin, instalazioak deuseztatu egin beharko ditu eta aipatutako kodifikazio horren arabera sortu fokuak. Gainera, fokua deuseztatutakoan, gero ezin izango zaio informaziorik lotu foku horri (foku hori ezin izango da AZPan sartu, ezta neurketen emaitzarik lotu ere). Halaber, foku hori ez da agertuko “Laburpena sortu” taulan.

Zenbakizko datuak dezimalekin idazteko, sistemak “koma” baino ez du onartzen (hortaz, dezimalak ezin dira “puntu” bidez adierazi).

Emisio fokuak

Zentroaren foku zerrenda

elementua bat bilatua.
1 orri

Erakutsi

	Fokuaire kodea	Fokuaire deitura	Jarduera	Emisio mota	Funtzionamendu	Egoera
<input type="checkbox"/>	0100031906-01	Caldera	03010303	Konfinatua	Sistematiko	

Deuseztatu Berrezarri Sortu Ezabatu Aldatu Kontsultatu

Irten

“Sortu” edo “Aldatu” → foku berri bati alta emateko aukera ematen dute, edo lehendik dagoen foku bat aldatzeko aukera (blokeatuta ez badago). Beste pantaila batean sartuko gara (nahitaezko eremu guztiak –izartxoaren marka dutenak–, gutxienez, bete behar dira derrigorrez):

Fokuaren alta egin

Fokuaren kodea

(*) AKDJ Jarduera Mota

(*) Fokuaren deitura

(*) Emisio mota

(*) Funtzionamendu

Potentzia (kw)

Erregai mota

(*) Altuera (m)

(*) Tratamendu eta kontrol sistema Instalatu zen urtea

Oharrak

Kutsatzaileak

Kod. Kutsatzailea	Desk. Kutsatzailea	Kod. E-PRTR Kutsatzailea	EUS
Ez dago ezer erakusteko			

Erlazionatu
Deselkartzea

Gorde Utzi

Fokuaren kodea → Fokuaren kodearen formatuak NIMA-1, NIMA-2... izan behar du. Instalazio berrien kasuan, fokuaren koderik ez bada sartzen, aplikazioak automatikoki esleituko dio bat. Lehendik dauden instalazioen kasuan, horrelako koderik baldin badute kode hori idatzi beharko da. Garrantzitsua da zenbaki bera duten bi foku ez daudela ziurtatzea.

AKDJ jarduera mota: aurreko poltsan alta emandako (eta deuseztatu gabe dauden) AKDJ jardueren artetik fokuari dagokiona hautatu behar da. Fokua jarduera bati baino gehiagori baldin badagokio, hemen nagusia adieraziko da, eta oharretan bigarren mailakoa.

Emisio mota → Konfinatua (bideratua) edo Difusoa

Funtzionamendu → Sistematikoa/ Ez-sistematikoa

Emisio mota difusoa baldin bada, instalazioak “Sistematikotzat” markatuko du emisio jarraituak baldin baditu; aldiz, emisioak ez badira jarraituak, “Ez-sistematikoa” aukera hautatu behar da Tratamendu eta kontrol sistema → goitibeherakoan gehien hurbiltzen dena hautatu behar da, edo “Arazteko sistemarik gabe” adieraziko da, kasua hori baldin bada. Arazteko sistema izanez gero, sistema hori zein urtetan jarri zen adierazi behar da.

Kutsatzaileen atalean, tximiniatik isurtzen diren kutsatzaileak zeintzuk diren adierazi behar da, AZPan horiek neurtzeko proposamena egin behar bada. "Erlazionatu" botoia sakatu eta foku horri dagozkionak hautatu behar dira.

(*) Altuera (m)

(*) Tratamendu eta kontrol sistema Instalatu zen urtea

Oharrak

Kutsatzaileak

<input type="checkbox"/>	Kod. Kutsatzailea	Desk. Kutsatzailea	Kod. E-PRTR Kutsatzailea	EUS	Erlazionatu
<input type="checkbox"/>	060103	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)			<input type="button" value="Deselkartze"/>
<input type="checkbox"/>	030206	ACIDO CLORHIDRICO[EUS]			
<input type="checkbox"/>	020102	MERCURIO Y SUS COMPUESTOS[EUS]	21		


<input type="checkbox"/>	Kutsatzailearen kod.	Kutsatzailearen desk.	E-PRTR kod.	CAS-aren kod.	CAS-aren desk.
<input checked="" type="checkbox"/>	020102	MERCURIO Y SUS COMPUESTOS[EUS]	21	7439-97-6	Mercurio elemental[EUS]
<input type="checkbox"/>	020303	CROMO Y SUS COMPUESTOS[EUS]	19	7440-47-3	CROMO Y SUS COMPUESTOS[EUS]
<input checked="" type="checkbox"/>	020304	CIANUROS FACILMENTE SOLUBLES[EUS]			

Sakatu botoia elementuak aukeratzeko.

Hautatutakoak

MERCURIO Y SUS COMPUESTOS[EUS]
 CIANUROS FACILMENTE SOLUBLES

Ezeztatu → Oker sartutako foku bat ezeztatu daiteke. AZPan erabiltzen ari diren fokuak, blokeatuta daudenak eta kutsatzaileak erlazionatuta dituzten fokuak ezin izango dira ezeztatu.

Deuseztatu () → lehen bazen foku bat orain ez dagoela adierazteko. Kontrako ekintza “Berrezarri” da. Foku bat deuseztatzen bada, AZPan zituen datuak ere automatikoki deuseztatutako dira. Fokuak berrezartzeko, berrezarri diren fokuak markatu eta “Berrezarri” botoiaren gainean klik egin behar da; kontuan izan foku bat berrezartzen delarik AZPan zituen datuak ere berrezarritu geratuko direla.

2.5 Atmosferaren Zaintza Plana

Atal honetan, zein AZP jarraitu behar den adieraziko du instalazioak. Horretarako, honako datu hauek adierazi behar dira: zer foku neurtuko diren, zer kutsatzaile, eta zenbateko aldizkakotasunarekin (ez da beharrezkoa EGBa, unitatea, %O₂-a, Araua adieraztea: neurketak egiten dituzten IKEek badute informazio horren berri eta instalazioaren AZPan txertatuko dute).

Pantailaren goiko aldea bete behar da, eta sartutako datuak gordetzen direnean, beheko taulan geratuko dira, errenkada moduan, zehaztutako AZPa.

AZParen azpian “Beste batzuk” izena duen atala dago; hiru oharpen daude, baina instalazioak ezin ditu aldatu. Hala badagokio, administrazioak jartzen ditu marka horiek.

Atmosferaren Zaintza Plana

Foku kanalizatuak

Foku kod.: Deskripzioa: Kutsatzailea:

Egb: Unitatea: %O2: Araua:

Aldizkakotasuna (hileak):

2 elementuak bilatua(k), elementuak guztiak erakusten.
1 orri

Erakutsi:

	Foku kod.	Fokuren Deskribapena	Kutsatzailea	Egb	Unitatea	% O2	Araua	Aldizkakotasuna (hileak)	Egoera
<input type="checkbox"/>	0100031764-01	general instalaciones (criba 12,14)	060103- PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	20	mg/Nm3		UNE-EN 13526	36 meses	
<input type="checkbox"/>	0100031764-02	Instalación arenas	060103- PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	150	mg/Nm3		UNE-EN 13526	12 meses	

Beste batzuk

Barreiatuen kontrola Etengabe neurtzeko sistema Autokontrola

Hasierako hiru poltsa hauetako datuak sartutakoan, berriro ere lehenengora –jardueri buruzkora– itzul daiteke “Laburpena sortu” egiteko; hartara, AKDJ jakinarazpen-memoria betetzeko baliagarria den informazioa lor daiteke (ikus gida honetako 3. puntua).

2.6 Emisioen Kontrola

Pantaila honetan, instalazioak bere fokuetan egin diren emisioen kontrolen emaitzak ikusi ahal izango ditu, baita Excel batera deskargatu ere (besteak beste, erregistro-libururako balio diezaiokoe –datu jakin batzuk aplikazioan egoteak ez du esan nahi instalazioak ez duenik erregistro-liburua izateko betebeharra bete behar, baimenean aipatzen denez–).

Datu horiek IKEek sartuko dituzte (datuak sartzeko moduari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gida berezia: “Nola sartu datuak Emisioen Kontroleko poltsan eta nola bidali dagokion IKE txostena”), txosten osoa e - DMA Eskaera baten bidez bidali baino lehen. Erakunde batek instalazioaren izenean datu horiek sartu ahal izateko,

instalazioak baimena eman beharko dio (ikus 2.7 puntua, baimen hori emateko moduari buruz).

Dokumentua administrazioan aurkeztu ostean, datuen errenkada horren “Egoera” “Aurkeztuta” izango da (pdf ikonoaren gainean klik eginez gero, txosten osoa zabalduko da). Egoera “Zirriborroa” izango da baldin eta datuak “Emisioen Kontrola” poltsan sartu badira, baina ez badugu burutu e - DMA Eskaera baten bidez bidaltzeko prozesua.

Zentroko Emisioen Kontrola
Zentroko Emisioen Kontrol Zerrenda

Bilatu:

Fokua	Kutsatzailea	Betetzen du	Med1	Med2	Med3	Unitatea	Emaria (Nm ³ /h)	Emari masikoa (kg/h)	Orduak, urteko	Urtea	ECA	Txosten Erreferentzia	Egoera
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	15	15	15	mg/Nm ³	15000	12	1500	2015	ATISAE	2015/15	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Bai	50	51	52	ppm	0	0		2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE NITROGENO	Bai	200	200		ppm	0,0001	0,0001	2	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	50	50	50	mg/Nm ³	1	1	1	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	15	15	15	mg/Nm ³	1500	15	1500	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	2	2	2	mg/Nm ³	2000	2	200	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Bai	125	200	25	ppm	256	0,3	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Ez	150	269		ppm	256	0,1	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE AZUFRE	Bai	15	200	190		2350	2	1547	2015	SFG	SFG-2015-12	Borrador [eu]
											Denak	Denak	

Aurrekoa 1 Hurrengoa

Irtien

Pantailan bi iragazki agertzen dira, datuak errazago aurkitzeko (IKEaren arabera edo Txostenaren erreferentziaren arabera iragazita); halaber, “Bilatu” tresna ere badago: taula osoan bilatu nahi den hitza edo zenbakia idatziz gero, elementu hori duten errenkadak agertuko zaizkigu.

2.7 IKEak

Hasierako IKE txostenaren esparruan, instalazioak 2.3, 2.4 eta 2.5 puntuetan adierazitako datuak IKSeeM sisteman behar bezala sartu dituela egiaztatuta behar dute IKEek. Horretaz gain, tximiniako neurketen emaitzak sartu behar dituzte “Emisioen Kontrola” poltsan, dela Hasierako IKE txostenetan, dela aldizkakoetan. IKE batek lan horiek egin ahal izateko,

AKDJ instalazioak baimena eman behar dio IKEari sisteman sartzeko. Hori horrela, IKEek neurketei buruzko informazio guztia aurkeztu ahal izango dute instalazioaren izenean.

Horretarako, "Gehitu" botoiaren gainean klik eginez gero leiho berri bat irekiko da, IKEtzat kategorizatutako zentro bat bilatu eta hautatu ahal izateko. Zentroa hautatzen denean, hautatutako IKEaren datuak kargatuko dira pantailan. Gainera, alta hartzeko eta baja emateko datak ere bete behar dira IKE horrek instalazioaren izenean datuak sartzeko baimena duen aldia zehazteko (baja emateko data ez da derrigorrez adierazi behar, baina komeni da). Bukatzeko, "Gorde" egin behar da.

Eta orduan gehituko zaio IKEa zentroko IKEen zerrendari. Altako datatik bajako data bitarte, erakundeak instalazioaren poltsetan sartzeko aukera izango du haren izenean izapideak egiteko ("Emisioen Kontrola" poltsako datuak betetzea, eta aldizkako IKE txostena Aire Zerbitzura bidaltzea e - DMA Eskaera baten bidez).

Zentroaren ECA
ECAko datuak

NIMA: 0100000000 Deitura: DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y POLITICA TE

IFK: S4833001C Gizarte arrazoia: EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO

Jardueren deskribapena: ADMINISTRACIÓN PÚBLICA MEDIOAMBIENTAL VASC

Helbidea: DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN, 1 P.K: 01010

Telefono zenbakia: 945016951 Fax: 945019883

Posta elektronikoa: eper-euskadi@ej-gv.net Web: http://www.eper-euskadi.net

(*) Alta data: 26/01/2016 Baja data: 27/01/2016

(*) Irakurri dut eta ados nago azaldutako informazioarekin [LOPD Irakurri](#)

[Gorde](#) [Gehitu](#)

ECA Zentroko zerrenda

elementua bat bilatua.
1 orri

	Gizarte arrazoia	IFK	Deitura	Alta data	Baja data
<input checked="" type="radio"/>	EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO	S4833001C	DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y POLITICA TERRITORIAL	2016-01-26	2016-01-27

[Ezabatu](#) [Aldatu](#) [Kontsultatu](#)

3 AKDJ jakinarazpena / AKDJ aldaketa bat egitea

Instalazioek “AKDJ jarduerak”, “Fokuak” eta “Atmosferaren Zaintza Plana” bete ostean eta, hala badagokio, IKEek “Emisioen Kontrola” poltsa bete ondoren, instalazioek honela jardun behar dute:

3.1 AKDJ jakinarazpen-memoria betetzea

Memoria hori betetzeko eredu eta memoria nola bete zehazten duen Gida – 04 erabiltzaileen eskura daude Ingurumen Sailburuordetzaren web-orrian, Aireatalean.

Memoria enpresan ahalordeak dituen norbaitek sinatu behar du, eta ez du zertan IKSeeM aplikazioan izapideak egiten dituen lagun bera izan.

Word dokumentua bete ondoren, pdf formatuan gorde behar da.

3.2 Dokumentazioa bidaltzea

Dokumentazioa bidaltzeko (Hasierako IKE txostenarekin batera, hala badagokio), izapide bat bete behar da e - DMA Eskaeraren bidez. e- DMA Eskaera bat nola egin behar den honako gida honetan dago azalduta: “Ingurumenari buruzko izapide elektronikoen Gida”.

Laburpen gisa:

1. **e - DMA Eskaeran sartu, eta markatu Berria**
2. **Hautatu SEKTOREA: AIREA, PROZEDURA: AKDJ: Jakinarazpena, Hasierako IKE txosten eta guzti**
AKDJ:Jakinarazpena, Hasierako IKE txostenik gabe

Oharra: jakinarazpenaren eraginpean dagoen instalazio batek aldaketarik eginez gero, aipatu ditugun bi prozedura horietakoren baten bidez (jakinarazpena, hasierako IKE txosten eta guzti edo txostenik gabe) jakinarazi beharko du. Horretarako, memorian, aldaketari buruzko informazioa baino ez da aipatu beharko, administrazioari aldeztu aurretik jakinarazitakoa berriro ere sartu gabe.

3. **Erantsi dokumentuak:**
 - Prozedura “AKDJ: Jakinarazpena, Hasierako IKE txosten eta guzti” denean, "nahitaezko dokumentua" atalean, sistemak honako aukera hau agertuko du (adibidetzat jarri dugu):

e-DMA Eskaera

Selección de Informe de Control de Emisiones [eu]

5 items bilatua(k), items guztiak erakusten.

1 orri

	Referencia del Informe [eu]
<input checked="" type="radio"/>	2016/15
<input type="radio"/>	SFG-02-2016
<input type="radio"/>	SFG-2014-00256
<input type="radio"/>	SFG-2015-12
<input type="radio"/>	Sin Controles en Focos Confinados [eu]

Itzuli Ezeztatu Gorde Jarraitu eskaerarekin

Alegia, IKEak "Emisioen Kontrola" poltsan datuak sartu dituen txostenari buruzko erreferentzia agertzen da, edo "kontrolik gabe konfinatutako fokoetan" aukera. Kontrol atmosferikoak egin badira, pantaila honetan dagokion txostena aukeratu behar da. Hala ere, jakinarazpenak hasierako IKE txostena eskatzen badu baina konfinatutako fokuetan ez bada neurketarik egin (adibidez, difusoen kontrolaren kasuan), "kontrolik gabe konfinatutako fokoetan" aukera hautatu behar da.

"Aukerako dokumentuak" atalean, jakinarazpen-memoria, gutxienez, gehituko da, pdf formatuan. Instalazioak eranskinak ere baldin baditu, edo arrazoiren batengatik dokumentu gehiago erantsi nahi izanez gero –segurtasun-fitxak edo beste plano batzuk–, "aukerako dokumentuak" aukeraren bidez erantsiko dira horiek ere.

- Prozedura "AKDJ: Jakinarazpena, Hasierako IKE txostenik gabe" denean, "nahitaezko dokumentuak" atalean jakinarazpen-memoria hautatu behar da, pdf formatuan. Instalazioak eranskinak ere baldin baditu, edo arrazoiren batengatik dokumentu gehiago erantsi nahi izanez gero –segurtasun-fitxak edo beste plano batzuk–, "aukerako dokumentuak" aukeraren bidez erantsiko dira horiek ere.
- 4. **Posta elektronikoko bi helbide adieraztea.** Administrazioak jakinarazpen, ebazpen edo zuzentzeko errekerimendu bat egiten duen IKSeeM aplikazioan, hemen adierazten diren helbide elektronikoetara ohartarazteko mezu elektronikoa bana iritsiko da, arduraduna IKSeeM aplikazioan sar dadin jakinarazitakoa kontsultatzeko.
- 5. **Eskaera sinatzea eta aurkeztea.** Sinatzeko garaian, baliteke arazo informatikoak sortzea, besteak beste, "Java ez dago eguneratuta". Kasu horretan, "Zuzenean" 012 telefono-zenbakira dei daiteke EAetik (Euskaditik kanpo, telefono-zenbakia: 945 - 011800) eta IKS zerbitzuarekin harremanetan jartzeko eskatu.

e-DMA Eskara aurkeztu ondoren, espedientea “Nire Espedienteak” atalean geratuko da, Hasita egoeran, eta espediente-kode bat esleituko zaio. Une horretan, “Emisioen Kontrola” poltsara itzuliz gero, aurkeztu berri dugun txostenaren errenkadak “Aurkeztuta” egoeran daudela ikusiko dugu, “Zirriborroa” egoeran egon beharrean, eta erantsitako pdf-rako zuzeneko sarbidea dutela. Errenkadak “Aurkeztuta” egoeran daudela, ezin dira aldatu; beraz, zenbakiren bat gaizki dagoela konturatuz gero, Aire Zerbitzuarekin harremanetan jarri behar da haiek zuzen dezaten.

Zentroko Emisioen Kontrola
Zentroko Emisioen Kontrol Zerrenda

Bilatu:

Fokua	Kutsatzailea	Betetzen du	Med1	Med2	Med3	Unitatea	Emaria (Nm ³ /h)	Emari masikoa (kg/h)	Orduak, urteko	Urtea	ECA	Txosten Erreferentzia	Egoera
0100031904-1	OXIDOS DE NITROGENO	Bai	10,5	25,3	12,1	ppm	1500	2000	632	2015	Applus	2016/15	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS TOTALES (PT)	Bai	15	15	15	mg/Nm ³	15000	12	1500	2015	ATISAE	2015/15	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTICULAS SOLIDAS INERTES	Bai	50	51	52	ppm	0	0		2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE NITROGENO	Bai	200	200		ppm	0,0001	0,0001	2	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS TOTALES (PT)	Bai	50	50	50	mg/Nm ³	1	1	1	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS TOTALES (PT)	Bai	15	15	15	mg/Nm ³	1500	15	1500	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS TOTALES (PT)	Bai	2	2	2	mg/Nm ³	2000	2	200	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTICULAS SOLIDAS INERTES	Ez	150	269		ppm	256	0,1	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	PARTICULAS SOLIDAS INERTES	Bai	125	200	25	ppm	256	0,3	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE AZUFRE	Bai	15	200	190		2350	2	1547	2015	SFG	SFG-2015-12	Borrador [eu]
											Denak	Denak	

Aurrekoa 1 Hurrengoa

[Datuak Inportatu](#) | [Excel-era exportatu](#) | [Txertatu datuak](#)

Irten

Oharra: IKSeeM sistemarekin berarekin lotutako arazoetan laguntza teknikoa lortzeko, jarri harremanetan IKS Zerbitzuarekin:

Euskaditik: 012 “Zuzenean”

Euskaditik kanpo: 945 018000

Atzerritik: 00 34 945 018000

*Jendeari arreta emateko ordutegia: astelehenetik ostiralera,
09:00etatik 13:30era.*

Helbide elektronikoa: dmausuario@yahoo.es